


ZERBITZUEN KARTA



JUAN BAUTISTA GISASOLA EIBARKO MUSIKA ESKOLA



SARRERA

Zerbitzu-karta honen bidez, Eibarko Musika Eskolan, gure eguneroko lanean eskaintzen ditugun zerbitzuak eta horiek aurrera eramateko, gure gain hartzen ditugun konpromisoen berri eman nahi diegu herritarrei. Hau dena, zerbitzuaren kalitateari dagokionez, etengabeko hobekuntza lortzeko helburuarekin.

MISIOA

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren helburua da Eibarko bizilagunei pedagogikoki erakargarria eta musikalki eraginkorra den hezkuntza musikaleko proiektu bat eskaintzea, tresna guztien irakaskuntzan oinarritua, musika joera guztietara irekia, eta 4 urtetik aurrerakoa, adin mugarik gabe.

Horretarako, profesional talde oso bat dugu, Eibarko gizarteari, oro har, eta ikasleei, bereziki, egunetik egunera zerbitzu hobea ematen diharduena.

BISIOA

Musika Eskolak nahi duena da musika-hezkuntzak —arte-hezkuntza den aldetik— eragina izatea gure ikasleak pertsona gisa gara daitezen, eta oro har laguntzea bizitzarekiko dituzten balioak, sentsibilitatea eta jarrerak gara ditzaten.

BALIOAK

- Musika komunikaziorako, aldaketarako eta berrikuntzarako tresna izan daitekeela sinesten dugu.
- Begirunea: lankideei, irakasleei, desberdintasunei.
- Diziplina: etengabeko praktika ikaskuntza-prozesuaren parte delako, arrakastara eramaten duelako eta bizitzarako ere balio duelako.
- Talde-lana: gure lan-dinamiketan eta geletan sortzen direnetan.
- Profesionaltasuna: hezkuntzarekin-eginkizunarekin eta musikarekin gaude konprometituak.
- Izaera integraztailea: era guztietako pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen ditugu.
- Hezkuntzarekiko konpromisoa. aukera-berdintasunaren eta bizi osoan zehar ikastearen alde gaude.

ARDURADUNAK

ARDURADUN POLITIKOIA: Francisco Javier Lejardi Galarraga

ARDURADUN TEKNIKOIA: José Luis González Blanco

HAINBAT DATU

Telefonoa: 943 70 84 35 / 943 70 27 25

Helbidea: PORTALEA eraikina, 3. eta 4. solairuak. Bista Eder, 10 - 1 - 20600 EIBAR

Helbide elektronikoa: musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus / jbgmusikaeskola@gmail.com

Web-orria: www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola

Bulego-ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 15:00

PLANOA

GPS Koordenatuak: Lat: 43,1846674884 / Lon: -2,46999263763428



ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUAK

ZERBITZUA	ZERBITZUA EMATEKO MODUA / XEHETASUNAK
INFORMAZIOA, ORIENTAZIOA ETA AHOLKULARITZA	
<ul style="list-style-type: none"> • Matrikulazio-prozesua. • Ordutegiak. • Tutoretzak. • Musika-tresnen mailegua. • Ikasteko gelak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurre • Telefonoa • Emaila • Web-orria
ESKOLA PRESENTZIALAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Musika eta Mugimendua (4, 5 eta 6 urte). • Musika-hizkuntza 7 urtetik aurrera. • Musika-hizkuntza helduentzat. • Instrumentu-espezialitateak. • Taldeak • Musikoterapia. • Ikusi eskaintza https://www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola/instrumento-ikasketak 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurre
HERRIAREN DINAMIZAZIO MUSIKALA EMANALDIEN BIDEZ	
<ul style="list-style-type: none"> • Audiozioak Coliseon, emanaldiak nagusien egoitzetan, emanaldiak jaietan, Gabonetan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurre • Zabalkundea Sare Sozialetan

GURE KONPROMISOAK

KALITATEA HOBETZEKO KONPROMISOAK	KONPROMISOEN ADIERAZLEAK (NOLA NEURTU)
<p>Ikasleak eta familiak begirunez eta profesioanaltasunez artatzea.</p> <p>7,5 lortzea erabiltzailearen asebetetze inkestan.</p>	<p>Ikasleen eta familien asebetetze maila, jasotako informazioari, eskuragarritasunari eta tratuari dagokienez.</p>
<p>Matrikulazioari buruzko informazioa eskura izatea kanal desberdinetan.</p> <p>7,5 lortzea erabiltzailearen asebetetze inkestan.</p>	<p>Ikasleen eta familien asebetetze maila, matrikulazioaren informazioari dagokionez.</p>
<p>Instrumentuen lagapenari buruzko informazioa igortzea balizko erabiltzaileei.</p> <p>6,5 lortzea erabiltzailearen asebetetze inkestan.</p>	<p>Ikasleen eta familien asebetetze maila, instrumentuen lagapenari dagokionez.</p>
<p>Instalazio eta ekipamendu egokiak edukitzea eskolak emateko.</p> <p>7,5 lortzea erabiltzailearen asebetetze inkestan.</p>	<p>Ikasleen eta familien asebetetze maila, instalazioei eta ekipamenduari dagokienez.</p>
<p>Irakasle profesional eta motibatuak edukitzea eta etengabeko prestakuntzan dihardutenak.</p> <p>7,5 lortzea erabiltzailearen asebetetze inkestan.</p>	<p>Ikasleen eta familien asebetetze maila, irakasleei dagokienez.</p>

KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

Gure konpromisoen betetze-mailaren jarraipena egingo dugu, eta horretarako hainbat adierazle ezarri. Datuak bi urtetik behin jaso eta behar diren ondorioak aterako dira. Jarraipen horri dagokion informazioa Eibarko Udalaren web-orrian argitaratuko da.

HARTUTAKO KONPROMISOAK EZ BETETZEA KONPENTSATZEKO NEURRIAK

Hartutako konpromisoren bat ezin bada behar bezala bete, aztertu egingo dira arrazoiak eta neurriak hartuko dira zerbitzua hobetzeko, betiere neurri horiek gure esku baldin badaude.

Zerbitzuarenak ez diren arrazoiengatik ezin badira konpromisoak behar bezala bete, berehala hartuko dira neurriak erabiltzaileek kalterik jasan ez dezaten.

PERTSONA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

- Beren duintasun pertsonalean errespetatuak izatea eta tratu egokia jasotzea.
- Beren eskola-errendimendua objektibotasun-irizpideekin baloratua izatea.
- Ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak egin ahal izatea zuzendari pedagogikoaren edo irakasleen aurrean.
- Ezarritako ordutegi akademikoa errespetatua izatea, eta irakaskuntza-jarduera etenez gero, horren berri ematea, eta, hala badagokio, irtenbide egokia bilatzeko egoera planteatzea.
- Aldian behin beren ikasketen bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.
- Kalitatezko irakaskuntza bat jasotzea, Eskolako arauen arabera.

PERTSONA ERABILTZAILIEN BETEBEHARRAK

- Ikasgaietako eta parte hartzen duten taldeetako eskoletara joatea.
- Ikasteari behar den denbora eta dedikazioa eskaintzea. Ikastetxetik jasotako dedikazioaren araberako aprobetxamendua egiaztatuko dute.
- Irakasleak emandako aginduak eta xedapenak betetzea.
- Helbide-aldaketaren berri ematea.
- Matrikulazio-tasen ordainketak garaiz egitea.
- Instrumentuak lagatzeko eta itzultzeko beharrezkoak diren tramiteak eta prozedurak egitea.
- Eskolako eraikinean eta materialetan egiten dituzten kalteak konpontzea eta ordeztea.

IKASLEEK PARTE HARTZEKO BIDEAK

Eibarko Musika Eskolako zerbitzuak hobetzen lagundu nahi dutenek 2 urtean behin egingo diren gogobetetze-inkestetan (ikasleak eta familiak) parte hartu ahal izango dute.

Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak ikastetxeko idazkaritzan aurkeztu ahal izango dira, iradokizunen postontzian utzita, PEGORAn aurkeztuta edo helbide elektronikoa honetara bidalita: kultura@eibar.eus Erantzunak iradokizuna planteatu den modu berean emango dira 15 eguneko epean.

ARAUDIAK ETA LEGEAK

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 9/1992 Dekretua, 1992ko urriaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika Eskolak arautu gabeko Musika Irakaskuntzako Ikastetxeen sorrera eta funtzionamendua ezartzen dituena.
- Barne Araudiko Erregelamendua.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

“Klororik gabe eta %100 paper birziklatuan inprimatua”.

2022ko martxoan argitaratuta.